


PCTI 2030 RIS3EUSKADI

# REPUMP

## "Prentsa hidraulikoen birmanufakturan, eragintza hidrauliko energetikoki efiziente eta modularren integrazioa."

**Unai Argarate,** Proiektuen Garapenerako Arduraduna.
**KONIKER/FAGOR ARRASATE**

u.argarate@koniker.coop

FAGOR
FAGOR ARRASATE

koniker

# ENPRESAREN AURKEZPENA

ekoSTEGUNA

FAGOR
FAGOR ARRASATE

koniker

FAGOR ARRASATEk, **metalak eta konpositeak konformatzeko estanpazio lerroak, altzairu eta aluminio bobinak moztu eta prozesatzeko lerroak eta etxetresnen sektorerako altzairuzko osagaiak ekoizteko lerroak**, diseinatu, fabrikatu eta hornitzen ditu.







1957 60 urte baino gehiagoko esperientzia.

520 langile.

6 ekoizpen eta muntaketa eraikin eta 7 zerbitzu gune.

Salmenten %85 esportatzen ditu.

165 MM€ fakturazioa 2022an.

Bezeroak; mundu mailako OEM eta TIER1ak

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

# ENPRESAREN ESTRATEGIA

ekoSTEGUNA

FAGOR
FAGOR ARRASATE

koniker

## ZERBITZUAK
FAGOR ARRASATE



| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ORDEZKO PIEZAK | ASISTENTZIA ETA MANTENTZE LANAK | RETROFITING EDO EKIPOEN MODERNIZAZIOA | FAGOR SMART-CONNECT | ASISTENTZIA AURRERATUA |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Aholkularitza teknikoa, lerroa hobetzeko moduari buruz, eta berrekipatzeko proposamen pertsonalizatua. | Dauden lerroen berringeniaritzak. | Kontrol berriak, 4.0 monitorizazio sistemak eta HMIak. | Instalazioen modernizazioa, esaterako, sistema elektrikoarena | Instalazioen erabilgarritasuna hobetzea | Ekipamenduak eta prozesuak optimizatzea |

**GIDARIAK:**

**-Lehiakortasuna.** OEE (Overrall Equipment Efficiency) handiagoa, RUL (Remaining Useful live) handiagoa, Energia kontsumo txikiagoa….

**-Arautegia berriak.** Bezeroek balio katean zehar ezartzen dituzten eskakizunak. CO2 aztarna neurtu, txikitu…

**-Barne motibazioa**. Enpresa moduan gizartearekiko duen erantzukizuna.

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

Herri-baltzua
Sociedad Pública del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

# PROIEKTU EKOBERRITZAILEAREN HELBURUA

ekoSTEGUNA

FAGOR
FAGOR ARRASATE

koniker

Proiektuaren helburu nagusia izan da, prentsetarako jarduera hidraulikodun irtenbide modularrak garatzea, birmanufaktura prozesuetan aplikatzekoak eta horien efizientzia energetikoa hobetzea ahalbidetuko dutenak, prestazio dinamikoak galdu gabe.

Helburu honek, ekipo-ondasunen eta makina erreminta sektorean jarraian aipatzen diren ondorioak edukiko lituzke:

1-Prentsa hidraulikoen parkearen bizitza-erabilgarria luzatuko litzateke, efizientzia energetikoaren hobekuntzari esker lehiakortasuna handituko litzatekeelako, oraintsu diseinatutako prentsekin konparatuta.

2-Materialen kontsumoa gutxituko litzateke, hain zuzen, prentsen bizitza erabilgarria luzatzeagatik eratorritakoa.

3-Produktu eta Zerbitzu sistemetan oinarritutako negozio eredu berriak hornituko lirateke, batez ere modulu hidrauliko berrien mantenimenduan oinarrituta.

Zehazki, proiektuak eragintza hidrauliko bat garatzea proposatzen du; karga aldagarrien galeran oinarritzen ez den kontrol aurreratua duena eta prentsa hidraulikoen efizientzia energetikoa hobetuko duena. Teknika berri honekin bizitza zikloaren faseak eta prentsen bizitza-amaiera hobetuko lirateke, prentsa berrien diseinu eta produkzio prozesuetan eraginda







ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

Herri-baltzua
Sociedad Pública del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

# LORTUTAKO EMAITZAK BAITA (ENPRESARIALAK ERE)

ekoSTEGUNA

FAGOR FAGOR ARRASATE

koniker

| Lehen fasea | Prentsen kontsumoa murrizteko eragingailu hidraulikoen garapena |
|---|---|

1. Eredu birtualen sorkuntza.
2. Kontroleko algoritmoen garapena
3. Instalakuntza industrialean baliozkotzea.

| Bigarren fasea | Modulu hidraulikoaren monitorizazioa |
|---|---|

1. Neurtu beharreko parametroen eta integratu beharreko sentsoreen definizioa.
2. Sentsoreen instalakuntza eta neurketa.

| Hirugarren fasea | Eragingailu hidrauliko efizienteak birmanufakturatzeko, modularizazioa eta estandarizazioa. |
|---|---|

1. Prentsa hidraulikoen katalogo estandarraren definizioa.
2. Pakete Hidrauliko gama desberdinen definizioa.




**Energia kontsumo murrizketa, nabarmena da; %35ekoa izatera iritsi daiteke**

| Kontrol mota | Servo-balbula bitartez eginiko kontrola | Punpa bitartez eginiko kontrola |
|---|---|---|
| Kontsumoa (kJ) | 3927.9 | 2551.9 |

**FAGOR ARRASATEREN ESKAINTZA**

***Pakete hidraulikoa** *Zilindro hidrauliko eta Sistema Hidrauliko berriez osatua.*

***Kontrol paketea.** *Sistema hidraulikoak momentu bakoitzean zenbat presio eduki behar duen kalkulatzen duen logikak osatzen du.*

***Monitorizazioa paketea.** Datu eskuratze plataforma da; bertan aurrez zehaztutako sentsore eta parametro desberdinen datu-bilketa gauzatzeaz gain, beraien analisi eta azterketa burutzen da.

Gaur egun, REPUMP proiektuan garatu den teknologia berritzailea, bezero desberdinei eskaintzen ari zaio Fagor Arrasate. Honen erakusle *Press Hardening* motako lerroetan gure eskaintza komertzialean integratzen diren proposamenak dira. (SEAT)







ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental

Herri-baltzua Sociedad Pública del EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

# BESTE ENPRESA BATZUEI AHOLKUAK

- FAGOR ARRASATE, teknologia hau garatzen hasi zenean, beste batzuetan gertatu izan zaion bezala, bezeroei kosta egiten zitzaien horrelako sistema baten abantaila errealak ikustea. Orain, egoera bestelakoa da; energiaren krisiaren erdian, garapenaren abantailak ezkuta ezinak dira eta ondorioz, FAGOR ARRASATEREN posizionamendua ona eta aurreikuspenak bikainak dira.

- FAGOR ARRASATEk, proiektu hau, IKERLAN eta KONIKERez gain GLUALekin batera garatu du. FAGOR ARRASATEREN ideiak, bere hornitzailea den GLUAL ere produktu hau garatzen laguntzera bultzatu du.

- Aldaketa klimatikoak eta lehengaien gabeziak, hainbat baliabideren kudeaketa zorrotza ekarriko du eta industria eta automobilgintzako agenteek horretaz jakitun izan behar dute. Hori dela eta aldaketa handiak datoz eta gure produktuen ingurumen inpaktua kontutan hartu ezean eta hau gutxitzeko ekinbideak martxan jarri ezean, atzean geratu eta lehikortasuna galtzeko arrisku handia dago.

- FAGOR ARRASATEk negozio bereiztu bat sortu du bezeroei hainbat asistentzia zerbitzu emateko. Produktu aldetik zein egitura aldetik aldaketak beharrezkoak dira.

www.ihobe.eus
www.ingurumena.eus

ekoSTEGUNA

PCTI 2030 RIS3EUSKADI

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

Herri-baltzua
Sociedad Pública del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

FAGOR
FAGOR ARRASATE

koniker